Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

241 zenbakia
2022 **abendua**

Prest!



BERBETAN: **ANGEL PRIETO FIDALGO** ARANGOITIKO AUZO ELKARTEA

ERREPORTAJEA: **DEUSTUALDEA, ETENGABEKO ALDAKETAN**

BARKUA: **LA MARTINA POTTERY**

TOKIKOM

37-238-239-240-241









Sustatzailea

Herbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu ikastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

Arrabain Taldea Deustu

Deustuko Ikastola

Deustuko Jai Batzordea

Bihotz Alai Fondakoen Dantza Taldea

Deustuko Gazte Lokala

Elorri Bertso Eskola

eaj pnv deustu

S.D. Deusto

ehbildu

Zirikatzen!

Deustuko Gazte Asanblada

Egunsentia Eskaut Taldea 1923tik

ernai Deustua

Pare Hautsi Mugak Kateak

B Bilbao

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

BASKale

Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

241 zenbakia
2022ko abendua

aurkibidea

Ibai Etxautz - Jaione Ayestaran — **Iritzia** 4

Carmen Garcia Rodriguez — **Gurera etorriak** 5

e erreportajea 6

Deustualdea, etengabeko aldaketan

2022. urtean Done Petri plaza berria zapaltzeko aukera izan dugu Deustuarrok. Arangoitiko auzokideek euria egiten duenean ere Araneko parkea erabili dezakete, bertan eraikitako estaldurari esker. San Inazion, Elorrietan eta Ibarrekolandan TAO zerbitzua ezarri da eta Deustuko Erriberan etxebizitza berriak eraikitzeaz gain, badirudi, errepide berriak uhartea zeharkatzen hasiko direla.

Deustu Ikastetxea — **Eskolak** 10

Urbitarte ahaztua — **Behin batean** 12

Saniko IV futbito txapelketa — **Artikulua** 14

b berbetan 16

ANGEL PRIETO FIDALGOrekin

Arangoitiko aparkalekuetako marra zuriak berde edo urdin bilakatuko dira datorren urteko seihilekotik aurrera. Horrez gain, Bilboko Udalak auzoak historikoki aldarrikatu duen igogailuaren proiektua idazteko konpromisoa ere hartu du. Badaukate, beraz, zer ospatu Arangoitiko auzokideek. Berrikuntzez, kezkez eta gabeziez hitz egin dugu auzo elkarteko presidentea den Angel Prietorekin.

Artiach lantegia (1966) — **Irudiak berbetan** 21

GABONAK Neguko solstizioa ospatu dute Deustualdean

ZERAMIKA La Martina Pottery: EAEko lehenengo “zeramikafea”

NUTRIZIOA Ainhoa Maiztegi

KULTUR TXOTX Dafne Gonzalez Villar eta Egoitz Ozamiz Uriarte

harkua bete herba 24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01



Ibai Etxautz
Sanikoa

Txiroa non, harraparia hegan

Estatuan, okupazioaren kontrako kanpainak aurrerapauso bat eman du PSOEK berriki aurkeztutako lege proposamenarekin. Arau berri horrek, 48 orduan eta aurretiazko epaiketarik gabe okupatutako espazioak hustea ahalbidetuko luke. Orain arte ez bezala, banketxeek, putre funtsek eta jabe handiek ere lege hori balia lezakete euren jabegoko higiezinak erreklamatzeko. Okerra litzateke erasoaldi hau modu isolatuan ulertzea; izan ere, ofentsiba orokorrago baten baitan dago kokatuta. Hau da, langileek daukaten apur hori xurgatu eta euren irabaziak bermatu eta areagotzeko eliteek martxan jarri duten erasoaldia, hain zuzen ere. Oinarrizko produktuen prezioen gorakadak, errepresio mekanismo zorrotzagoak, soldaten jaitsierak eta beste asko dira horren adibide. Etxebizitzaren afera ez dago egoera horretatik kanpo. Ez da harritzekoa, beraz, kapitalismoak pobretutako askok okupaziora jo behar izatea bizirauteko bitarteko gisa. Egoera horretara bultzatu dituen sistemak, ordea, kriminalizatu eta delitugile gisa aurkezten ditu okupatzea beste biderik ez dutenak. Horretaz gain, legedi berri hori langile antolakuntzaren kontrakoa ere bada, aski ezagunak baititugu Euskal Herrian militantzia politikora bideratutako gune okupatuak. Erasoaldi honen aurrean klase bezala erantzuten ez bada kolpeak are latzagoak izango dira. Ehiztariak ondo daki harrapakina noiz erasotu, taldea utzi eta bakarrik eta isolatuta jarduten duenean. Txiroa non, harraparia hegan.

Jaione Ayestaran
Kazetaria



Gabonak

Topikoa da Gabonak topikoz jositako festak direla aipatzea. Ez da txarra, ordea, topikoei tartea egitea. Hilabete lehenagotik, erakusleihoak kantuz ari zaizkigu, umeak urduri daude, Mari Domingi lanez gainezka dago, Olentzerok ez du ume guztien letra ulertzen, eta koadrilan, ahaztu zaigu lagun ezkutua egitea. Telebistan perfume iragarkiak baino ez dira ageri, ETBn kantuan ari dira, eta ilara luzea dago aurrez prestatutako janari-dendetan (bai, emakumeek ere sukaldetik kanpo pasa nahi dituzte Gabonak). Badakit kontsumismo hutsa direla. Badakit kaleetan dauden argien erdiak sobera daudela. Badakit urte berriak ez duela ezer aldatuko, eta loteriak ez dituela munduko miseriak konponduko. Badakit jendeak kalean lo egingo duela guk posible duguna baino gehiago irensten dugun bitartean. Badakit ez gaudela denok. Ezer gutxi dugula ospatzeko. Badakit Bibliako pasarte sinesgaitz batek markatzen digula egutegia. Eta, hala ere, Gabonak ospatzeko ohitura dut. Zer nahi duzue esatea? Gauza asko egin dira halamoduz hona heldu baino lehen. Eta ez daukat eztabaidatzeko gogorik. Aurten ere, asko gara, gogoz zein gogorik gabe, mahaiaren bueltan eseriko garenak. Egin dezagun topa egon ezin direnen alde!



Carmen Garcia Rodriguez

Jatorria: Caceres
Bizitokia: Ibarrekolanda
Lanbidea: Erizaina

“Euskaraz hitz egiten ez jakiteak asko mugatzen du nire lana”

Osakidetzan erraztasun handiagoarekin lan egiteko helburuarekin hasi zen aurreko ikasturtean Carmen euskara ikasten. Jaiotzez Caceresekoa da eta bost urte daramatza Deustualdean bizitzen.

Zergatik etorri zinen Euskal Herrira?
Lanbidez erizaina naiz eta duela bost urte IMQ ospitalean lan egitera etorri nintzen. Gaur egun Osakidetzako larrialdietan egiten dut lan.

Zer dela eta erabaki zenuen Osakidetzan lanean hastea?
Osasungintza pribatuan lanean nengoenean, etxebizitza beste erizain batekin partekatzen nuen. Berak esan zidan osasungintza publikoko lan poltsan izena emateko, jende berri asko deitzen ari ziren eta. Hala egin nuen, eta geroztik kontratu ezberdinetan ibili naiz.

Nolako harrera egin dizute hemen?
Oso ona. Caceresetik Bilbora lanera etorri nintzenean ez nuen ia inor ezagutzen, baina gutxika-gutxika azken urte hauetan jende asko ezagutu dut, entrenamenduetan alde batetik, eta lanean bestetik.

Gaur egun Matxintxu euskaltegian ari zara euskara ikasten.
Bai, hau nire bigarren urtea da. Osasungintza publikoan euskaraz hitz egiten jakiteak puntuazio handiagoa ematen du, horregatik ekin nion ikasteari. Gainera, kontratu ezberdinak hartzeko aukera handiagoa ematen dit. Bestalde, larrialdietan Euskal Autonomia Erkidegoko txoko guztietako deiak jasotzen ditugu egunero, eta ikusi dut euskaraz hitz egiten ez jakiteak asko mugatzen duela nire lana, ospitale batean baino gehiago.


Zer da gehien kostatzen zaizuna?
Hasieran dena iruditzen zitzaidan zaila, batez ere hizkuntzaren erroa oso ezberdina delako. Deklinabideak dira nire ustez ulertzeko zailenak.

Zer esango zenioke oraindik euskara ikasten hasi ez den norbaiti?
Ahalik eta arinen hasteko. Duela bost urte Euskal Herrira bizitzera etorri nintzen arren, duela bi hasi nintzen euskara ikasten, ez nuelako pentsatzen Euskal Herrian denbora luze emango nuenik. Orain ikuspegia aldatu dut, oraindik ez dakit datorren urtean hemen egongo naizen edo nire herrira itzuliko naizen, baina bitartean euskara ikasten ari naiz eta badakit erabilgarria izango dela.

Zer sumatzen duzu faltan Caceresetik?
Familia eta lagunak batez ere. Bi hilabeterik behin joan ohi naiz hauek bisitatzera.

Zer duzu Euskal Herrian edo Bilbon gustukoen?
Hasteko eta bat, kokapen geografikoa. Lur eremu berean hondartza eta mendia bata bestearengatik hurbil egotea plazer hutsa da. Bestetik, hemengo klima ere gustuko dut, ez du bero gehiegirik egiten eta hotza ere nahiko jasangarria dela esango nuke. Euriarekin adibidez ez naiz ondo moldatzen, izan ere Caceresen ez du hemen beste euririk egiten.

Hemengo egunerokotasunari dagokionez, zer da gehien harritu zaituena?
Ostegunetan egiten den pintxopotea, zalantzarik gabe. Caceresen asteburuetan dagoen parranda hemengoaren oso antzekoa da, baina deigarria da ostegunetako plan hori nola dagoen hemengo jendartean errotuta.



Cabras eta Banderas mendi inguruetan egingo duten begitatoki berriaren irudia.

DEUSTUALDEA, ETENGABEKO ALDAKETAN

2022. urtean Done Petri plaza berria zapaltzeko aukera izan dugu Deustuarrok. Arangoitiko auzokideek euria egiten duenean Araneko parkea erabili dezakete, bertan eraikitako estaldurari esker. San Inazion, Elorrietan eta Ibarrekolandan TAO zerbitzua ezarri da eta Deustuko Erriberan etxebizitza berriak eraikitzeaz gain, badirudi, errepide berriak uhartea zeharkatzen hasiko direla.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu

Aldaketaz beteriko urtea izan da igaro berri dena, eta aurreikuspenen arabera, badirudi 2023. urtea ez dela gutxiago izango. Udaberrian, udan zein udazkenean abiatuko dituzten lan ezberdinen albisteak etengabe jasotzen ditugu Deustualdean. Ukaezina da gure kaleak etengabeko aldaketan daudela.

Bilboko Udalak azaroaren 28an ospatutako osoko bilkura ezohikoan onetsi zuen 2023ko Udal Aurrekontuen proiektua. Abenduaren 28an ospatuko den bigarren ezohiko bileran berretsi beharko dute, baina aldaketa nagusirik gabe, printzipioz orotara 663,5 milioi euroko aurrekontua onartuko dute, iazkoa baino %4,8 handiagoa, hain zuzen. Udalak igorritako oharrean Deustualdean gertatuko diren zertzelada batzuk irakur daitezke. Besteak beste, Enekuri, Elorrieta eta Artxandako lotura eraikitzea, Deustuko Erriberan energia berriztagarrien sistema ezartzea, Lehendakari Agirre etorbidea berrurbanizatzea, Erribera babesteko hesia eraikitzea eta orokorrean, Auzokide Planean dagoeneko sartuta dauden bestelako obrak. Horietan denetan sakontzen saiatu gara 2022. urteko azken erreportaje honetan.

Elorrieta

Deustuibarra eta Artxanda arteko bidea oinezkoentzako irisgarri egiteko helburuarekin, azaroan egurrezko bi pasabide eraikitzeko lanak abiatu ziren Cabras eta Banderas mendi inguruetan. Horiek horrela, azaroko lehenengo egunetatik abian daude Artxandako begiratokiko pasealekua Enekurirekin lotzeko lanak. Bide hau zehazki, Banderas mendiaren tontorreraino helduko da eta Berriz bidetik jarraituz, Artxandako begiratokiko pasealekuarekin bat egingo du.



Enekuri gainean eraikiko dituzten egurrezko pasabide berrien marrazkia.

Honako bide honek guztira kilometro eta erdiko luzera izango du. Azaroko azken egunetan berriz, proiektu honen bigarren pasabidea eraikitzen hasi ziren, zehazki, Cabras mendiaren hegaletik Elorrietaraino iritsiko dena; eta bertan Ibarrekolanda bidearekin bat egingo duena. Proiektuari zortzi hilabeteko epea esleitu diote beraz litekeena da uda baino lehen Deustualdean hain ezagunak diren bi mendi inguru hauen artean egurrezko bi pasabide berri izatea. Bilboko Udalak adierazitakoaren arabera, lan gehienak eskuz egingo dira, "natura-ingurunea ahalik eta gehien zainduta mantentzeko asmoz" eta makinak erabili behar izanez gero, "ingurune maldatsu hartarako aproposenak erabiliko dituztela" ohartarazi du. Lehenengo pasabidearen aurrekontua 1.892.249,65 eurokoa da eta bigarrenarena berriz, 1.573.986,36 eurokoa.

Deustuko Erribera eta Zorrotzaurre

Zaila da Deustuko Erriberan ematen ari den eraldaketa hain lerro gutxitan laburtzea. Bilboko Udalak hiri eredu berriari begira jarri zuen Bilbo aspaldi, eta ukaezina da Deustuibarra izango dela eredu honen protagonista nagusia. 2022ko urtarrilaren 14an inauguratu zuten Deustuko Kanaleko pasealekua, Zorrotzaurre planaren lehen bide



Deustuko Erriberako aldaketaren marrazkia.

historiako lehen
HEDABIDE MASIBOA DA LIBURUA
GETXO
azaroak 17 - abenduak 9
Punta Begoña
AMOREBIETA-ETXANO
abenduak 19 - urtarrilak 9
Zelaieta
erakusketa
LIBURUAREN ARBOLA
Euskararen Etxea
Bizkaia
Getxo



Arangoitiko Araneko parkean eraiki duten estalki berria.

berria izan zen hura, eta bi kilometro baino gehiagoko luzerarekin, gaur egun Bilbon dagoen oinezko ibilbiderik luzeena da. 2023ko apirilean aldiz, dagoeneko eraikitzen hasi diren kale berri bat zabalduko dute Deustuko Erriberan, Gehry zubia amaitu eta 50 metrotara hasiko dena. Hitzarmen batzordeak argitu bezala, 'La Palmera' izenez ezaguna den etxearen atzealdetik igaroko da eta garai batean Coromina Industrial izeneko lantegia zegoen puntu berean amaituko da. Kale honek errail bana izango du noranzko bakoitzean, baita oinezkoentzako espaloia ere.

Hasiera data finkorik gabe, besteak beste, auzo bereko petrilaren birmoldaketa lanak ere hasiko ditu Udalak 2023an. Lanek 1.680.515 euroko lizitazio-aurrekontua dute eta hauen xede nagusia galtzada uholdeetatik babestea izango da. Datu teknikoei erreparatuta, 1.220 metroko luzera eta zimendu-horma batek eragindako 3,91 metrotik gorako kota finkoa izango ditu. Era berean, itsasertzean aurkitzen diren eskaileretan, aldapetan edota zamalekuetan zimendu-horma eraiki beharrean, uhate bidezko sistema bat eraikiko dela aurreratu dute, alde batetik itsasadarrera sarbidea bermatzeko eta bestetik, itsasgoretan batez ere, ura galtzadara helduko ez dela bermatzeko. Petrilaren birmoldatzeak hautsak harrotu ditu Erriberako auzokide batzuen artean.

Arangoiti

Aldizkari honetako elkarrizketa nagusian irakur daitekeenez, Bilboko Udalak 2023an zehar igogailu berria proiektatzeko konpromisoa hartu zuen udalbatzan eta ondorioz, espero da 2024. urtean Arangoitiko eta Deustuko erdiguneak konektatuko dituen igogailua erabilgarri egotea. Era berean, 2022ko berrikuntzei dagokionez, Araneko parke berria inauguratu zuten joan den maiatzaren 30ean. Espazioa estaltzeaz gain, handitu ere egin dute.

Deustu

Azaroaren 28an hasi ziren Deustuko Agirre lehendakariaren etorbidea osorik berritzeko obrak. Zehazki, lanak Don Bosco biribilgunetik Done Petri plazaraino helduko dira eta Bilboko Udalaren hitzetan, hauek "oinezko



Deustuko Agirre Lehendakariaren etorbideko obra berriaren marrazkia

izaera emango diote kaleari". Lan hauen aurrekontua 4.733.680 eurokoa da eta aurreikuspenen arabera, hamabost hilabeteko epean egingo dira, hau da, 2024ko urtarrila inguruan amaituko dituzte. Bide-zoruak berrizteaz gain, zenbaki bakoitien aldean jada Don Bosco biribilgunetik Iruña kaleraino hel-tzen den bidegorria birmoldatu eta Luis Power kaleraino luzatuko dute.

Halaber, errepidea erdibitzen duten loreontziak ere kenduko dituzte, espaloiaren zabalera handituko dute, eta argazkietan ikusi ahal denez, berdegune gehiago eraikiko dira.

Proiektu honek zenbait auzokideren artean zalantzak sortu ditu, izan ere, aipatutako berrikuntzez gain, egun etorbidean aurkitzen diren 128 zuhaitz eraitsi eta 125 berri landatuko dituztelako.

Helduko da ere 2023. urtea atzean uzteko momentua, eta kaleak etengabeko mugimenduan daudela onartuta, Zorrotzaurreraino helduko den tranbiaren gainean hitz egitea egokituko zaigu, edota dagoeneko Arangoitin erabilgarri egongo den igogailuaren inguruan. Kontuak kontu, ikus dezagun momentuz, datorren urteak dakarrena.



Deustuko Agirre Lehendakariaren etorbideko obra berriaren marrazkia

DEUSTU IKASTETXEAN, IKASLEAK KANTARI

Testua eta argazkiak: Deustu Ikastetxea



Ikasturte honetako partaideak.

Kantatzea gauza dibertigarria da, erraza, naturala, eta horretarako ez da ezinbestekoa musika irakurtzen jakitea edo instrumentu bat jotzen jakitea. Kantatzea ia sortzetikoa da, eta emozioekin zuzenean konektatzen duen adierazpide bat. Taldean egiteak, gainera, interakzio sozial mota oso berezia sortzen du, bai abeslarien artean, bai entzuleekin. Horregatik, Bilboko Koral Elkarteak Deustu Ikastetxeari abesbatza bat osatzea proposatu zionean, ez genuen bitan pentsatu.

Bilboko Koral Elkarteak 135 urte baino gehiago daramatza koru-musikaren balioak sustatzen eta, musika mota hori kontserbatu eta zabaltzeko printzipioei leial, 17-18 ikasturtean proiektu berri bati ekin zion, Eskolan Kantari, koru-musika jende gehiagorengana hurbiltzeko eta, zehazki, ekarpen handia egiteko duen kolektibo batengana hurbiltzeko, horiek baitira etorkizuneko koru-musikaren oinarriak: haurrak.

Eskolan Kantari musika korala txikienei hurbiltzen saiatzen da eta haiengan musikarekiko maitasuna pizten, baina berritasunik handiena da bere ohiko ingurunean gauzatzen dela, hau da, eskolan. Hala ere, ez da eskolaz kanpoko beste jarduera bat, baizik eta gure abesbatza propioa sortzea, kalitatezko kultur jarduera bat ezarriz, abesbatzen eta hezkuntzaren munduan ezaguna eta ezaguna den erakunde batek bermatutako profesionalen eskutik, gure haurrei musika-jardueren ingurune oso baterako sarbidea ematen diena.



Deusto Ikastetxean, Eskolan Kantariaren helburu eta interesekin guztiz bat etorriz, proiektuarekin bat egin dugu, eta, horrela, aldez aurretik musika-hezkuntzarik izan ez duten haurrek eskolan lehen harremana izatea eta koru-musikarekin ohitzea lortu dugu; bien artean bizikidetza-harreman osasungarriak ezartzen dituzte, taldean lan egiten ikasten dute, mundu osoko musikekin ohitzen dira eta modu ludiko eta lasaian beren hazkunde pertsonalean laguntzen duten balioak garatzen dituzte.

8 eta 12 urte bitarteko kideekin, lehen egunetik egiten dute jarduera, gogo biziz, bai ikastetxeak, bai parte hartzen duten ikasleek. Jakina, pandemia galga handia izan da abesbatzarentzat, baina, gaur egun, etapa hori gainditua dagoela esan dezakegu, eta abesbatzak bere prestakuntza eta hazkundearekin jarraitzen du, ikastetxe barruko zein kanpoko emanaldietan parte hartuz, ikastetxeko ikasle guztiak jarduera horretan nolabait inplikatuz.




Gainera, ikastetxetik kanpoko emanaldiek aukera ematen diete parte hartzen duten ikasleei eta haien familiei ohikoak ez diren kultura- eta musika-jardueretara hurbiltzeko, eta interes, kezka eta, agian, bokazio berriak pizten dizkiete.



URBITARTE AHAZTUA

Deustuko Erribera uharte bihurtuta, urbitarteak itzuli dira Ibaizabaleko itsasadarrera. Izan ere, berba hori erabiltzen zen Bilbo aldean ibaiko irla txikiei esateko. Horietako bat Deustua eta Abando artean zegoen, Kaba aurrean.

Testua: Hektor Ortega



Urbitartea, 1849.

Planoetan ikusita, Kaba aurreko urbitartea luzea eta meharra zen eta Abandoko ertzetik hurbil zegoen. Testu honen lagun datorren 1849ko mapak erakusten duen bezala, orduan lehorrari lotuta gelditzen zen mutur batetik marea behera zenean.

Eta "urbitarte" deitu diogu, horrela jasota aurkitu dugulako dokumentazioan aipatzen ari garen uharteari esateko: "una ysleta o urbitarte". Beste aldaera bat ere erabili zuten garai batean bilbotarrek eta albo-herrietako bizilagunek Uribitarte toponimoak erakusten digun bezala.

Uribitarte edo urbitarte, esanahia ezin garbiagoa da. Uribitarte uhartea, argitu dezagun, artifiziala zen, nabigazioa errazteko induskatutako kanalaren ondorioz.

Kaba aurreko urbitartea, berriz, ibaiak sortutakoa zela ematen du. Jabetzaz Bilboko Kontsulatuarena zen, alegia, hiribilduko armadore eta merkatarien elkartearena. Baina XIX. mendearen hasieran ez zion ematen inongo erabilerarik eta, horregatik, alokatu egiten zuten. Nori? Bada urbitarteko belarra probestu nahi zuten baserritarrei.

1810ean Kontsulatuak eskriturak osatu zituen “Kabako harategiaren aurrean dagoen urbitartea” zazpi urtez alokatzeko. Sasoi hartan Deustuko harategia Kaban zegoen, gaur egun Deustuko Unibertsitatearen eraikin berriena dagoen lekuan.

Hiru gizonei esleitu zien uhartetxoa: Abandoko Domingo Ordeñanari eta Ignazio Garairi eta Deustuko Martin Basaberi, alegia. Baina zer alokatu zien Kontsulatuak? Bada, hiru alokatzaileek urbitarteko belarra aprobetxatzeko eskubidea eskuratu zuten, baita haien aziendek uhartean bazkatzeko ere, beti ere bertako arbolei kalterik eragin barik.

Zuhaixkak landatu

Ordainean, Ordeñanak, Garaik eta Basabek ez zuten dirutan errentarik eman behar. Alokairuaren truke, urtero 90 mihimen ar landatu behar zituzten “urbitarteko ertz osoan”. Halaber, hirurek uhartea zaindu behar zuten inork ez zezan bertatik harearik atera baimen barik, ezta belarrik ere. Hori zen guztia. Beraz, balio gutxi aitortzen zioten uharteari batzuek eta besteek. Badirudi Kontsulatuak uhartearen iraupena bermatzea beste helbururik ez zeukala.

Antzeko eskriturak osatu zituzten hurrengo urteetan. 1818an, esate baterako, Ordeñanak, Garaik eta Basabek alokairua berritu zuten, zazpi urterako, antzeko baldintzetan. Orduan ere 90 mihimen ar landatzeko konpromisoa hartu zuten, baita aurreko urteetan landatuetan ikusitako faltak ordezkatzeko ere.

Eta 1840ean, Domingo Ordeñanak, Martin Basabek eta Pedro Ibarretxek (hau ere deustuarra) alokatu zuten urbitartea bederatzi urterako. Orduan ere ezarri zieten errenta arboletan ordaindu behar zuten: ahal zuten pago eta tamarindo gehien landatu behar zituzten.

XIX. mendearen bigarren erdialdean Abando aldeko ibaiertza hesitu eta kai bihurtu zuten. Orduan (1870) desagerrarazi zuten Uribitarteko uhartea (Abandotik banatzen zuen ubidea lehortuz), eta, pentsatzekoa da, sasoi hartan ere antzera gertatu zitzaion Kaba aurreko urbitarteari.

Arrastorik utzi gabe galdutako uharte hori irudikatu nahi duenarentzat esan dezagun gaur egungo Deustuko unibertsitatearen eta Botikazarra institutuaren aurrean zegoela, Abandoko ibarretik hur.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

SANIKO IV FUTBITO TXAPELKETA

San Inazioko hainbat gaztek hitzordua gizan genuen abenduaren 10ean, larunbata, auzoko laugarren futbito txapelketa mixtoan parte hartzeko. Egun osoko plangintza zuen antolatuta Saniko Gazte Asanbladak, goizeko hamaiketatik arratsaldeko seietan finala amaitu zen arte.

Testua eta argazkiak: San Inazioko Gazte Asanblada



Txapelketan izandako sortzaileen herri azoka

Parte hartzaileak hurbiltzen ziren heinean giroa berotuz joan zen Ibarrekolanda institutuko patioan. Goiz osoan zehar luzatu zen sailkapen fasean, guztira zortzi talde elkarren aurka lehiatu ziren, finalaurrekoetan tokia egiteko asmoz. Elkar ezagutu edo gabe, zelaiaren ertzetan partida ikusten ari ziren ikusleen animoak entzuten ziren. Futbolean entzun ohi diren oihuez aparte, zenbait DJen 'pintxadek' saioa alaitu zuten. Hasieran Sustrai Labeak arduratu zen bere steppa doinu dantzagarriak jartzeaz eta Yakintza eta Ibis Templumen technoa geroago heldu zen.

Finalaurrekoetan sailkatu beharreko talde guztiak zeudenez, 14:30ean bazkaltzeko merezitako atsedenaldia egin zen. Ogitartekoak jatearekin batera, auzoko eta inguruko sortzaileen herri azokatik pasatzeko unea ere egon zen. Azokan, besteak beste, Gorka Alvarez 48015, Ugli Buni eta Orbain izan ziren, haiek egindako arropa erakusten eta saltzen.

Egunari amaiera emateko asmoz, soilik garailea nor izango zen erabakitzea falta zen. Finalaurreko bi partidak emozioz beteta egon ziren, izan ere talde guztiak oso parekatuta zeuden. Finala are zirraragarria izan zen, Pirinpos I (beltzez), aurreko urteko finalista, eta Gordete FC (gorriz) taldearen artean. Partidaren lehenengo zatian golik egon ez zen arren, lehia handia zegoela argi geratu zen eta arrisku handiko hainbat jokaldi egon ziren. Bigarren zatian, berriz, talde gorriko atezainaren ustekabeko ateraldi batekin eskuratu zuten lehen gola Gordete FC taldekoek. Pirinposek ez zuen amore emateko asmorik, alabaina, gogor borrokatu ostean bigarren postuan sailkatu ziren beste urte batez.



Parte hartzaileak.

Era honetan, Gordetes FC txapeldun bihurtu eta auzoko Etxarte tabernan afari bat irabazi zuten. Zorionak! Saniko Gazte asanbladako kideok oso pozik gaude aurtengo edizioan futbito txapelketak izan duen parte hartzearekin. Ikustekoa da auzoan gazteentzako aisialdi proposamenek harrera ona dutela, eta kuadrillen arteko saretzea emateko aukera ezin hobea da. Horregatik beharrezkoa iruditzen zaigu aukera gehiago izatea honelako egitasmoak bizitzeko. Gure partetik Saniko gazteok lanean jarraituko dugu ditugun proposamenak aurrera eraman ahal izateko.

GORA DEUSTU TALDEAK DEUSTUKO KILOMETRO BERTIKALA AURKEZTU DU

Testua: PREST! **Argazkia**: Gora Deustu

2023ko urriaren 8an, igandea, ospatuko da Deustuko lehen kilometro bertikala. Joan den abenduaren 1ean egin zuten aurkezpen publikoa auzoko Done Petri plazan eta bertan azaldutakoaren arabera, egitasmoa Deustuko beste hainbat herritar eta kirol elkarterekin batera antolatzera doaz. Antolatzaileek "proba berritzailea eta aldi berean erronka handia dela" adierazi dute. Deustuko lehen kilometro bertikalak hiru kategoria izango ditu, norbanakoa, taldeka egitekoa eta azkenik gaztetxoei zuzendutakoa. Ibilbideari dagokionez, kilometro bateko luzera izango du 150 metroko maldarekin eta Berriz mendiko tontorrean izango du helmuga. Amaitzean jai giroan ospatuko den sari banaketa ere egingo dute. Hainbat modalitatetan sariak egongo direla aurreratu dute jada: norbanako, talde eta gaztetxo onenen sariez gain, emakumezko onena sarituko dute, baita Deustuar onena ere. Unera arte, Ramon y Cajal kalean kokatuta dagoen Crossteam Lions gimnasioa, Deustuko Jai Batzordea eta Agirre Lehendakariaren etorbidean kokatuta dagoen Zamalloa fisioterapia klinika batu dira egitasmoaren babesle gisa.



Abenduaren 1ean plazan egindako aurkezpena.

iNTXiXU ikastola

ATEAK ZABALIK: otsailak 18, larunbata (11:00 – 13:00)
PUERTAS ABIERTAS: sábado 18 de febrero (11:00 – 13:00)

GUZTIONA GUZTIONTZAT!



KALITATEA HEZKUNTZAN
INTXIXU IKASTOLAKO FAMILIA ELKARTEA

MATRIKULA / MATRÍCULA
Otsailaren 13tik 24ra
Del 13 al 24 de febrero

Tel. 944759180
zuzendaritza@intxixuikastola.net
www.intxixu-ikastola.net
Kanariar Uharteak, 71 – 48015

berbetan

ANGEL PRIETO FIDALGOrekin

Arangoitiko Auzo Elkartea

“Egun Arangoitin dagoen igogailua ez



Arangoitiko aparkalekuetako marra zuriak berde edo urdin bilakatuko dira datorren urteko seihilekotik aurrera. Horrez gain, Bilboko Udalak auzoak historikoki aldarrikatu duen igogailuaren proiektua idazteko konpromisoa ere hartu du. Badaukate, beraz, zer ospatu Arangoitiko auzokideek. Berrikuntzez, kezkez eta gabeziez hitz egin dugu auzo elkarteko presidentea den Angel Prietorekin.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Ecuador Etxea

da auzoaren beharretara egokitzen”

Arangoitiko auzo elkarteko presidentea zaren aldetik, zein da zure ustez horrelako elkarte batek bete behar duen funtzioa?
Nire ustez, nahitaezkoa da elkarteak auzokideen interesak defendatzeaz arduratzea. Auzo bakoitzak bere behar propioak izaten ditu, eta, horregatik, norberaren interesak ere ezberdinak izango dira. Gurean, adibidez, hiru adar bereizten ditugu: lehenik eta behin, hirigintza eta zerbitzuak lantzen dituena, hala nola, garraio publikoa, irisgarritasuna, osasun arreta… . Bigarren adarrean gai sozialagoak jorratzen ditugu, besteak beste, behar bereziak dituzten pertsonei laguntza eskaintzea, kartzelan dauden presoak bisitatzea.. eta, azkenik, hirugarren adarrak kulturarekin zerikusia duten bestelako gai guztiak barnebiltzen ditu.

Aipatu dituzun hiru funtzio horiek betetzen dituzuela esango zenuke?
Auzo elkarteak gaur egun hirigintzarekin eta zerbitzuekin zerikusia daukaten gaiak lantzen ditu batez ere. Beraz, hasieran aipatu ditudan gainerako funtzioak beste hainbat elkarterekin elkarlanean betetzen ditugu.

Auzokideek kontuan hartzen dute egiten duzuen lana?
Iritzi asko daude. Batzuek kale bat konpondu gabe egotearen errua auzo elkarteari egozten diote. Beste batzuek aldiz, auzoan egiten diren hobekuntza guztiak Udalaren borondatez egin direla uste dute… pentsatu gabe auzo elkartea izan dela aurretik proposamen horiek egin dituena. Hala eta guztiz ere, gehienak kontziente dira egiten dugun lanaz eta hala helarazten digute guri ere.

Auzokideen gehiengoak hala erabakita, 2023an TAO zerbitzua izango duzue Arangoitin. Zein da aparkalekuekin duzuen arazoa?
Aspaldi daramagu auzoan aparkalekuekin arazoak izaten. 2019. urtean adibidez, 80 auto inguru txarto aparkatuta zenbatu genituen gau ezberdinetan, eta, noski, hauek uzteko plaza huts bat ere ez. Halaber, San Inazion TAO zerbitzua ezarri dutenetik egoerak okerrera egin du, izan ere, lehen San Inazion autoa uzten zutenek orain gure auzoan aparkatzen dutelako. Irtenbide bat bilatzeko asmoz, Bilboko Udalari behaketa bat egitea eskatu genion, eta honek Arangoitin aparkatuta dauden autoen %52a bertokoa ez dela ondorioztatu zuen.

Nolakoa izan da TAO zerbitzua inplantatzeko prozesua?
Saiatzen gara auzokideen izenean erabakirik ez hartzen. Hortaz, eta gaiak duen garrantzia kontuan hartuta, auzokideen iritziak jasotzeko prozesu parte-hartzaile bat abiatu

“San Inazion TAO zerbitzua ezarri dutenetik egoerak okerrera egin du”

▷▷ SAKONEAN

“Auzokideen iritziak heldu behar diren lekura heltzeko tresna garrantzitsua dira auzo elkarteak”



Zer da zuretzako Arangoitiko Auzo Elkarteko kide izatea?

Auzoan funtzio ezberdinak betetzen dituzten 16 elkarte daude gaur egun. Auzoko elkarte ezberdinetan lanean ari garenontzako harrotasun eta, aldi berean, ardura handiz egiten den lana dela esango nuke, iritzi ezberdinak dituzten pertsona ezberdin asko ordezkatzen ditugulako. Niri dagokidanez, poztasun handiz bizi dut auzo elkarteko presidentea izatea. Azken urtean lortutako berrikuntzek horretan lagundu dutela esan behar dut ere. Beste batzuetan neketsua ere bada, behin eta berriro gauza berdinak aldarrikatu behar ditugunean.

Uste duzu auzo elkarteak beharrezkoak direla auzoetan?

Uste dut oso garrantzitsuak direla. Hasieran azaldu bezala, auzo bakoitzak bere beharrak ditu, eta behar horiek bertan bizi diren auzokideek inork baino hobeto ezagutzen dituzte. Iritzi eta behar horiek heldu behar diren lekura heltzeko tresna garrantzitsua dira auzo elkarteak nire ustez.

genuen. TAO zerbitzuarekin lotutako datu guztiak bildu genituen hasteko eta infografia baten bitartez ahalik eta informazio zehatzena zabaldu genuen: zerbitzuaren prezioa, baldintzak etab. auzokideak informatuta mantentzeko batetik, eta erabakia informazio horren gainean hartzeko bestetik. Zalantzak argitzeko asanblada bat antolatu genuen eta ostean, ekainaren 4an zehazki, TAO zerbitzua ezarri ala ez erabakitzeko bozkatu genuen. Guztira 1200 lagunek parte hartu zuten, eta horietatik %93ak TAO zerbitzuaren alde bozkatu zuen.

Beste inoiz egin izan duzue halako prozesu parte-hartzailerik?

Erabaki guztiak auzokideek babesten dituzte, hori baita gure lan egiteko filosofia. Ikasturte hasieran elkarteak landu beharreko gaiak zehazten ditugu asanblada batean, eta bertan auzokideen proposamenak ere jasotzen ditugu. Dena ondo bidean, ikasturte amaieran berriro biltzen gara balorazioa egiteko eta hurrengo ikasturtean gai horiek lantzen jarraituko dugun ala ez erabakitzen dugu.

Deusturekin konektibitatea hobetzeko bigarren igogailuaren proiektua 2023an osatuko dute. Hori ere auzo elkartearen proposamena izan da?

Proposamena baino, eskari historikoa dela esango nuke. Egun dagoen igogailua ez da auzoaren beharretara egokitzen. Deustuko erdigunetik urrun dago, baita auzoko erdigunetik ere. Bi auzoetako erdiguneak lotuko dituen igogailua behar dugu eta horrela aldarrikatu dugu egindako manifestazio zein agerraldietan. Azken proposamena Bilboko Udaleko udalbatzan egin genuen, eta horri esker 2024an igogailua eraikitzeko udalaren konpromisoa lortu dugu.

Nolakoa da gaur egun auzoak duen konektibitatea?

Ez da txarra, baina asko hobetuko litzateke aipatu dizudan igogailua balego. Bestalde, Bilbobusen A6 lineak egiten duen ibilbidea funtsezkoa iruditzen zait, batez ere, auzoko nagusienentzako. Deustu eta Arangoiti lotzeaz gain, auzoko bi muturrak ere lotzen ditu eta oso erabilgarria da behealdetik anbulatoriora heltzeko. Arangoititik Bilboko erdigunera heltzen den linea ere asko erabiltzen dugu, baita egun dagoen igogailua ere.

Igogailuaz gain, zer beste lorpen izan duzue auzoan azken hilabeteetan?

Alde batetik, jubilatuen elkarteak Arangoitiko jubilatuak elkartzeko espazio bat lortu berri du. Bestetik, eskolako guraso elkartearen eta zuzendaritzaren laguntzaz pandemia garaitik itxita zeraman eskolako patioa berriz zabaltzea lortu dugu. Halaber, parkeari aterpea jarri diote auzo elkartearen proposamenez, eta honekin batera, Deustura joateko bideen sare berri bat eraiki dute. Amaitzeko Buenavistarako bidea hobetu eta espaloia eraiki dute irisgarriagoa izan dadin.


Gabeziaren bat ere izango duzue, ezta?

Bai, noski. Gustatuko litzaiguke anbulatorioan arratsaldez ere artatuak izateko aukera izatea, gaur egun soilik baitago goizez irekita. Horrez gain, auzoan gero eta saltoki gutxiago daude eta horrek bereziki kezkatzen gaitu. Internet bidezko erosketek edota Deustuko supermerkatu handiek lehia handia egiten diete auzoko denda txikiei. Badakigu, gainera, urte luzez aldarrikatu dugun igogailuak egoera hau okertu baino ez duela egingo, Deustun erosteko tresna gehiago jartzen ari garelako. Oso frustragarria da.

Eta bada kezkatzen zaituen gairik?

Arduratuta gaude Artxandako zabortegiaren berrirekitzearekin. Eusko Jaurlaritzaren erabakia den arren, bereziki gogaitzen gaitu bere garaian Bilboko Udalak Artxandako parkea hiriarentzako apustu gisa irudikatu zuelako. Eta orain, lindanoa duen zabortegi bat berrirekitzea ahalbidetu duela jakin dugu. Era berean, auzoko sukurtsal guztien itxiera kolpe handia izan zen auzoko merkatarientzako eta mugitzeko zailtasunak dituzten nagusientzako ere.

“Anbulatorioan arratsaldez ere artatuak izateko aukera izatea gustatuko litzaiguke”



HEZKUNTZA

Ikasleen beharrizanei erantzungo dien hezkuntza sistema aldarrikatu du Ikamak

"Zuenak ez digu balio, hezkuntza gure neurrira" lelopean, hezkuntza sistema feminista, euskalduna, inklusiboa eta ekologista aldarrikatu zuen abenduaren 15ean Ikama Ikasle Antolakundeak Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Bilboko mobilizazioa La Casillatik irten bazen ere, Ibarrekolandako institutuko eta Deustuko Ikastolako Ikama taldeek zutabea osatu zuten manifestazio hasieraraino. "Genero eta sexu rolekin amaitu eta, zaintzan oinarritutako pertsona ororentzako espazio segurua" izan beharko luke hezkuntzak Ikamaren ustez. Horrez gain, Euskal Herria ardatz izan beharko lukeela ere uste dute, "gure hizkuntza, historia eta kulturaren transmisioa bermatzeko". Orokorrean egungo hezkuntza sistema, "sistema beraren biziraupena bermatzeko tresna" bat dela salatu zuten mobilizazioetan, eta "gutxi batzuen mesedetan antolatuta dagoela".



KULTURA

Pabellon 6k Cabaret Chiuaua antzezlanaren 10. urteurrena ospatuko du Gabonetan

Felipe Lozak sortu eta zuzendutako komedia 2013. urtean aurkeztu zuten. Hamarkada bat beranduago, 200 emanalditik gora eskaini dituzte eta guztira 17 antzezle pasatu dira taula gainetik. Obra giro euskal mexikarrean garatzen da, eta bertan kontatzen diren istorioak "zoritxarrez gaurkotasuneko gaia izaten jarraitzen du" Pabellon 6ren arabera. Izan ere, 2013an hiru urteko krisialdiaz hitz egiten zen antzezlanean, eta oraingo honetan, ordea, 12 urteko krisialdia aipatzen da: lan prekarietatea, etxegabetzeak, bankuen abusua, miseria…". Hala eta guztiz ere, obra zuzeneko musika eta umore handiko komedia dibertigarria dela gogoratu dute. Emanaldiak abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra bitartean egingo dituzte.



OSASUNA

Estresa eta antsietatea kudeatzeko tailerra abiatuko dute Arangoitin

Osasun mentalak denontzako irisgarria izan behar duela ulertuta, 2018. urtean Arangoitiko auzo elkarteak estresa eta antsietatea kudeatzeko tailerra abiatu zuen. Urte hartan Agirre Baserrian lau ikastaroko 3 hiru tailer eskaini zituzten dohainik eta ostean, iraupen handiagoa izan zuten beste 8 ikastaro egin zituzten. Pandemiak ez zituen elkartearen asmoak bertan behera utzi, itxialdi garaian saioak telematikoki egiten jarraitu baitzuten. Alabaina, itxialdia amaitu arren, ez dute orain arte Agirre baserrira itzultzeko aukerarik izan, osasun-neurri guztiak bermatzen zituen espaziorik ez zegoelako. Orain, saioekin jarraitu ahal izateko gela berri bat lortu dute eta momentuz bost sesioko bi tailer egingo dituzte.



KIROLA

Deustok hirugarren postuan amaituko du urtea

Etxezuriko taldea sasoi onean dabil denboraldi hasieratik eta asteburuz asteburu sailkapeneko lehen postuetan mantendu da. 14 partidaren ostean play-off postuetan finkatuta dabiltza Aritza Escandonen mutilak. Lehen itzuliko azken partida Barakaldoren aurka izango da, unera arte porrotarik jaso ez duen talde bakarra, hain zuzen. Abenduaren 17an Ondarroako Aurrera taldeari 1-2 irabazi ostean denboraldiko seigarren garaipena lortu du talde tomateroak. 24 punturekin amaituko du urtea, play-off kanpo dagoen lehen taldearekiko hiru puntuko abantailarekin. Partida gutxien galdu dituen bigarren taldea da Deusto. Bi porrota bakarrik jaso ditu eta argi utzi du 14 jardunaldi hauetan ez dagoela prest hiru puntuak inori emateko. Era berean aurkakoengandik gol gutxien jaso dituen laugarren taldea da.











Urtea: 1966

Txema Luzuriaga

Artiach lantegia

Hilabete honetan Artiach Gaileten enpresa ikusiko dugu. Erriberan eta Bilbon oso ezaguna izan zen eta joan den ikasturteko ekainean ikusitako Toldos Bilbao-Goyoagarekin batera, Deustuko Elizateko alde honetako industriaren erakusle bilakatu ziren biak. Gumersindo Artiachek lantegia Zorrotzaurreko Erriberan zabaldu zuen 1920. urtean. Hala eta guztiz ere, bere lehen labea 1907. urtean Bilbon ireki zuen. Horiek horrela, Deustuko Erribera aukeratu zuenean, industrialde berri batera lekualdatzeko hautua egin zuen. Deustuko kanalaren lehen proiektua sortu baino lehen, 1928. urtean, enpresa askok Ibaizabal-Nerbioi ibaiaren ertzetan hedapen eremu ezin hobea ikusi zuten. Artiach lantegia Erriberan izan zen 1983ko uholdeak gertatu arte. Gaur egun lantegia Orozkon aurki daiteke. Aiora Kintanak utzitako argazkia, “Las Galleteras de Deusto” liburukoa.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnona: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

uriola
uriola.eus

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Beharrezkoak iruditzen zaizkizu Gabonetako argiak?



Maddi

Instituzioek klima larrialdiarekin duten konpromiso falta argitzen da Gabonetako argiak piztearekin batera.



Aitor
Basauri

Bere etxean argindarra ordaintzeko arazoak dituen jendea dagoen bitartean, ez zait bidezkoa iruditzen kalean beharrezkoak ez diren argiak egotea.



Aitor
Bilbo

Ez dira beharrezkoak. Ospakizuna gizartearen osotasunari inposatzen diete baliabide publikoak erabilita espazio publikoa bereganatuz. Hain hedatuta dauden Gabonak arlo pribatuan ospa daitezke inongo eragozpenik gabe, baliabideak eta espazio publikoa erabilera aberasgarriagoetara bideratzen diren bitartean.



Julen
Deustu

Ez zaizkit beharrezkoak iruditzen, argindarraren prezioa asko igo da eta jendeak alaitasuna beste leku batzuetan aurki dezake Gabonetan.



Jone
Deustu

Gorroto ditut. Instituzioek klima larrialdiarekiko duten konpromiso eza erakusten dute Gabonetako argiekin.



June
Deustu

Ez zaizkit beharrezkoak iruditzen baina gustuko ditut.

>> GABONAK DEUSTUALDEAN

NEGUKO SOLSTIZIOA OSPATU DUTE DEUSTUALDEAN

Testua: PREST!

Deustun Olentzeroren eta Maridomingiren bisitarekin, umeentzako tailerrak antolatu dituzte Done Petri plazan goizean. Bitartean, Bihotz Alai dantza taldeak 12:30ean Iruña kaleanhasitako dantza-kalejira abiatu du, "2022a agurtzeko asmoz". Arratsaldeko 17:30ean abiatu da Done Petri plazatik Olentzero eta Maridomingiren kalejira mitikoa eta auzoko zenbait kale kantuan zeharkatu ostean, plazara itzuli eta txokolatada bero batekin agurtu dute aurtengo neguko solstizioa.



Arangoitin ere ez da txokolaterik falta izan. Agirre Baserrian arratsaldeko 17:30ean Olentzero eta Maridomingiren kalejira abiatu ostean, arratsaldeko 19:00ak aldera txokolate beroaz gozatu ahal izan dute bertakoek.



San Inazion berriz, hainbat eragilek parte hartu dute aurtengo prestaketan, besteak beste, Txepetx aisialdi taldeak, Goi-Herri dantza taldeak, Hiruauzo San Inazio, Elorrieta eta Ibarrekolandako merkatarien elkarteak eta noski, San Inazioko Jai Batzordeak ekarpena egin diote Olentzero eta Maridomingiren kalejirari. Arratsaldeko 17:30ean abiatu da kalejira Baztan Haraneko plazatik, eta Pedro Astigarraga plaza zeharkatu ostean, Agirre lehendakariaren etorbidera heldu da. Azkenik, arratsaldeko 19:30ak aldera heldu dira Levante plazara, eta bertan Jai Batzordeak eta Aisialdi taldeak prestatutako txokolatada eskaini diete auzokideei.

Azkenik, Deustuko Erriberan arratsaldeko 18:00etan elkartu dira Yolanda Gonzalez plazatxoan Olentzerori eta Maridomingiri elkarrekin abesteko. Ostean, gainerako auzoetan bezala, txokolatada ere prestatu dute.



BILBOKO KONPARTSEN EGUTEGIA BERBAIZUN SALGAI!



Uholdeak gertatu eta 40 urtera, Bilboko Konpartsek 1983an uholdeen hondakinak kentzeko eta berreraikitzeko bilbotarrek egin zuten balentria gogora ekarri dute, "Elkarlan Uholdea" izeneko egitasmo baten bidez. Kanpaina horrek borondatezko eta elkartasunezko lanari balioa emango dio, gaur egungo eta etorkizuneko balio gisa. Bilboko Konpartsen 2023ko egutegiak, ahalegin kolektibo haren argazki sorta ikusgarria jasotzen du. Hauek dira federazioko kideen hitzak:

"Datorren urtean 40 urte beteko dira zoritxarreko uholdeak izan zirenetik. Aste Nagusia bete-betean harrapatu zuen uriolak, jaietako egun nagusian, hain zuzen ere. 1983ko abuztuaren 26an itsasadarrak gainezka egin zuen eta, Aste Nagusiarekin batera, milaka bilbotarren bizibideak eta ametsak eraman zituen aurretik".

Bilboko konpartsen egutegia "Elkarlan uholdea" ekimenaren abiapuntua da. Beste urteetako ohiko gai koloretsutik atera eta iraganeko zuri-beltzera egin dute atzera, orduko elkarlan erraldoi hari gorazarre egiteko. Egutegiaren gai nagusia, beraz, 40 urte atzera eginda, uriolen ostean sortutako elkarlan eta elkartasun uholdea izango da. Egutegia bi euroan salgai dago Berbaizu Euskara Elkarteko lokalean eta mozkinen erdia Etxaldeko Emakumeak taldearentzat izango da.



eidabe
www.eidabe.com
info@eidabe.com

>> ZERAMIKA

LA MARTINA POTTERY: EAEKO LEHENENGO "ZERAMIKAFEA"

Proiektu berritzaile honek Sabrina Escobar jabearen laguntzarekin edo norbere kaxa, zeramikazko pieza bat era librean apaintzeko aukera ematen du kafea edan bitartean.

Testua: Pablo Martinez Canibe **Argazkiak:** La Martina Pottery



Deustuko Erriberan ametsetako leku batekin topo egin dugu. Zeramikazko piezaz betetako lokal familiarra da La Martina Pottery eta bezeroek eskuekin pieza diseinatzen duten bitartean lasaitasuna bilatzeko eta deskonektatzeko gune egokia da. Itsasadarrera begira dagoen lokal txiki hau artez beteriko leku atsegin batean bihurtu du Sabrina Escobarrek."Norberaren irudimena askatzeko aukera ematen du" Sabrinaren arabera. Pieza bat aukeratu eta era librean edo eredu anitzen bidez margotu daitezke zeramikazko eskulanak.

Horiek horrela, amesturiko diseinua eguneroko kikaran plasmatzeko aukera ematen du zeramikafeak. Diseinua amaitu eta lehortu ostean, Escobarrek piezak esmaltatu eta labera sartzen ditu.

Zortzi ordu eman behar ditu piezak 1.000 gradutara labean, eta horren ostean etxera eramateko prest egongo da. Platerak, ontzitxoak edo tamaina ezberdinetako kikarak daude, besteak beste, eta piezek 10 eta 35 euro artean balio dute.





Euskal Autonomia Erkidegoko lehen zeramikafearen jabea Sabrina Escobar zeramista da. Argentinatik etorri zen duela lau urte eta uda honetan ireki du negozioa: “Ilusio handia nuen ireki nuenean, asko gustatzen zaidan proposamena delako”. Berak piezak egin arren, bezeroen artea da gehien gustatzen zaiona “asko harritu” baita batzuen artearekin. “Askok, atetik sartu bezain laster margotzen ez dakitela diote lotsaturik, baina pieza margotu ostean pozik eta emaitzarekin harro ateratzen dira” azaldu du. Hasieran denek uste dute pieza egiteko margotzen jakin behar dutela baina dituzten tresnekin edonor zeramikazko artelan izugarriak egiteko gai da. Inspirazioa ahalik eta onena izateko kafe bat eta jateko mokadu bat eskaintzen ditu Escobarrek. Urrian, garagardoaren egunaren harira, edari hau eskaintzen hasi zen eta gaur egun hala egiten jarraitzen du.

Pintzelekin edo belaki bidez margotu daiteke. Norbere artea zeramikazko piezan irudikatzeko gai dira batzuk eta beste batzuek berriz, zeramikafeak eskaintzen dituen giden laguntzaz margotzen dute. “Nahikoa da izena jartzea ezberdina eta propioa izateko”, azaldu du Escobarrek. Orotarikoak dira diseinuak eta haien maskota irudikatzea gustuko dute askok. Izan ere, arkatza erabili daiteke silueta egiteko, labean desagertzen baita.

Bezeroak 20 eta 40 urte artekoak dira orokorrean. Jende gazte asko hurbiltzen da eta Erasmuseko jendea ohikoa izaten da La Martina Potteryn. Lokalaren ezagutzaren hedatzearekin batera, jende nagusiagoa animatu da eta urtebetetzeak ospatzeko aukera ere ematen du. Etxeko txikiak joateko ere leku egokia da, haien estresa alde batera uzteko batez ere.

Negozioa ezagutzera ematea ez zen gauza erreza izan. Nahiz eta Sabrina Escobarren ametsetako tokia izan, nahiko ezkutatuta dago eta ez da jende askorik bertatik pasatzen. Lehen egunetik auzokideek propaganda egiten lagundu zioten. Hilabete batzuk beranduago bezero asko ditu eta askotan ez da lekurik egoten. Tokirik gabe ez geratzeko, erreserbak egin ahal dira baina zuzenean berataratzeko aukera ere badago. La Martina Pottery beti egongo da prest lekutxo bat eskaintzeko. “Astean barruko goizetan lasaiago egoten gara, baina jendea lanetik ateratzen denean edo asteburuetan, hitzordua hartzea komeni da”.

Guztira bi ordu inguru ematen ditu jendeak bere irudimenean galduta pieza apaintzen. Beste leku askotan ez bezala, oso arraroa da jendea mugikorrarekin ikustea, argazkia ateratzeko ez bada. Emaitzarekin pozik, bezeroetako askok errepikatzea erabakitzen dute.





DEBEKUAREN ETA DESKONTROLAREN ARTEKO PARADISUA: MALGUTASUNA

Gaurkoan, kontsultan artatutako kasu erreal baten inguruko hausnarketa dakarkizuet. Sorkunderen kasua, alegia (izen berria esleitu diot).

Sorkunde eguneko azken pazientea izan da, eta kontsultatik atera denean, supermerkatura abiatu da segidan (azken kontu hau laster ulertuko duzue). Hilabete pare bat daramagu batera lanean, eta oso pozik jartzen naiz berak emandako pausoekin gogoratzen naizenean. Bere ibilbidearen inguruan aritzeko, aurrera-pausoak aipatu ahalko nituzke soilik, baina, honek ez luke errealitatea islatuko. Prozesu guztietan aurrera- eta atzera- pausoak baitaude, eta biak beharrezkoak dira ibilbidean ikasketak lortzeko. Eta, noski, Sorkunderen prozesuan biekin egin dugu topo, normala den moduan.

Gure bideak bateratu baino lehenago, Sorkundek hamaika dieta ezberdin probatu zituen, eta hauek guztiek ezaugarri berdinak partekatzen zituzten: murrizketa eta debekua. Gehienek, noski, konposaketan gantza eta azukrea daramaten elikagaiei behin-betiko agurra zekarten.

Duela bi aste, Sorkunderen mezu bat jaso nuen gabonetako ekitaldi-sozial eta familiarrekin kezkatuta. Zehazki, azken hilabeteetan lortutako ohitura osasungarriak galtzearekin kezkatuta zegoen. Eta egoera azaltzeko “kontrolik eza” aipatzen zuen maiz. Gainera, azken asteetan birus ezberdinek Sorkunderen errutina hankaz gora jarri dute. Aspaldian somatzen ez zituen emozio eta sintomekin bizi izan da azken egunetan: neke fisiko eta mentala, apatia, kirola egiteko eta sukaldatzeko gogo falta, eta elikagai gozoekiko desio handitua, Suchard turroiarekiko batez ere.

Turroia erosi eta jan duen galdetu diodanean, ezezko erantzun irmoa jaso dut. Ondoren, zergatia galdetu diot eta honakoa erantzun dit: “Ainhoa, beldur naiz. Momentu honetan ez daukat zati bakar bat soilik jateko gaitasunik, nahiago dut hutsik ez egin”. Honek nire nutrizionista-alarma piztu du, eta gertutasun handiz azaldu diot nutrienteek ez daukatela ez etika ez moralik. Ez dagoela elikagai onik edo txarrik. Eta geure buruari debeku bat jartzen diogunean, honek martxan jartzen duela debeku hori uneoro gure buruan bueltaka egoteko prozesua.

Sorkunde etxekolanekin atera da kontsultatik: supermerkatura joan eta turroi eskaintza guztien artean, gehien gustatzen zaiona erosteko agindu diot. Ondoren, etxera heldu eta bere betiko errutinaren ostean, (seme-alabekin denbora pasa, dutxatu, pijama jantzi, afaldu…) etxeko tokirik lasaigarrienera jo eta turroi ilara bat era kontziente batean dastatu eta gozatzeko eskatu diot. Horrez gain, prozesu guztian zehar, turroiaren bila joan denetik, hura dastatu arte, bere desio maila nola aldatu den

kontuan hartzeko eskatu diot. Azken lerro hauek idatzi ditut Sorkunderen feedback-a jaso bezain pronto. Ariketa planteatu genuen moduan burutu du, eta, berarentzako egoera berezia izan dela aitortu dit. Konturatu da bere desio maila gutxitzen joan dela supermerkatutik atera denean. Izan ere, plazer gehiena sortarazi diona, turroia eskuragarri edukitzea izan da. Gainera, turroiaren ilaratxoa bukatu ere ez du egin, ase sentitu baita hura amaitu baino lehen. **Elikagaiekiko debekua apurtzen dugunean, horrelako gauza pentsaezinak gertatzen dira. Izan ere, aukeratzeko askatasunak libre egiten gaitu.** Eskerrik asko Sorkunde, zure istorioaren zati bat zabaltzen uzteagatik.



Ainhoa Maiztegi
@ainhoamaiztegi.nutricion

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…







ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa





DAFNE GONZALEZ VILLAR
Emakumea eta sortzailea

Artea kultura eta sorkuntza

Urtea amaitzear dago, baina kulturak bere bidean jarraitzen du. Duela gutxi arteari buruzko hitzaldi bat eman nuen eta gazte batzuek honako hau galdetu zidaten: "baina zertarako balio du arteak?". Hasieran, nire gorputza ikaratu egin zen, galdera hori benetan egin ote zidaten zalantzan jarriz. Hala ere, galdera hori ez dut artisten lana gutxiesteko keinu gisa ikusten, ezagutza falta gisa baizik.

Artea zer den deskribatzea edo definitzea gauza konplexua da, eta uste dut historikoki modu desberdinetan definitua izan dela, denak baliozkoak. Hala ere, uste dut gizartean oraindik badagoela aurreiritzi bat sortzaileekiko. Egia da XIX. mendeko artistaren profila ez dela gaur egungoa bezalakoa. Orain emakumeen edota hizkuntza ikusezinen ahotsak entzuten dira, beste etnia batzuetako pertsonen artea aldarrikatzen delako, eta orain, azkenik, artea ez dagoelako burgesiarekin lotuta, eta hortaz, sorkuntza eta gozatu ahal izatea ez dagoelako burgesiaren mende. Espazioa eta tresnak ahalbidetzen dituzten sare eta ehun publiko, alternatibo edo underground berriak daude gaur egun, nahi duen orok bere proiektua aurrera eraman ahal izateko.

Artearekin dudan harremana beti egon da poesiarekin eta dantzarekin lotuta. Duela gutxi elkarrizketa batean galdetu zidaten: zergatik aukeratu zenuen poesia? Nire ustez, artea ez da aukera kontziente bat, hau da, ez da egun batean jaiki eta hartzen den erabakia. Jaio eta erraietatik sortzen den prozesu bat da, barrutik gertatzen den guztia eta baita kanpokoa ere ulertzeko bitartekoa. Arteak pertsonaren adierazpena bilatzeaz gain, interpelatzea, hunkitzea eta ikuslearengana iristea ere du helburu. Artea adierazpen-modu gisa, gizarte honetan bizirauteko bitarteko gisa, errealitate berrien aukera gisa, batasun gisa, errealitate bidezkoago, errealago eta inklusiboago baten errebindikazio gisa, artea sentsibilizazio-tresna gisa, artea sendabide gisa.



EGOITZ OZAMIZ URIARTE
Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Ze ederra ta ze polita

Urtero bezala egun
bereziak ditugu orain
arbol argidunak, kanta
gabon filmak turroi usain
denda batetik bestera
tradizioaren ordain
bi aste hauetan denak
zorionaren kapitain.
Bizitza honetan baina
ezertxo ere ez da dohain
ezinbestean hor gaude
hurrengo zartadaren zain

Jaiotzetik denok dugu
optimismorako sena
eskutan etorkizuna
ta bizipozaren lema
gure onerako baina
ez da dirudien dena
eta horren adibide
hor dugu itxaropena.
Huraxe izatez bait da
gaitz denetan okerrena
pertsonen sufrimendua
handiagotzen duena

EMAN IZENA
DOHAINIK DA!



Praktikatu Euskaraz Gurekin!

Berba laguna
607 530 132
praktikatu.eus/blog/bilbo
berbalaguna@aek.eus

berba LAGUNA · Berbaizu euskara elkartea · aek garena ikasteko... · praktikatu mintzapraktika aek egitasmoak · Bizkaia foru aldundia diputación foral · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · Bilbao



EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta Deustualdeko euskalgintza.
20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari.


Informazio gehiago: prestharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA
Prest!

Berbaizu euskara elkartea

Berriro salgai!
¡De nuevo a la venta!





Deustua ezagutzen duzu?

¿Conoces Deusto?

Erosketa puntuak:

- Deustuko Liburudenda (Deustu)
- Etxean Liburudenda (San Inazio)
- Guimerá Paperdenda (Elorrieta)

BAKARRIK
POR SÓLO
23 €
LIBURU BAKOITZA
CADA LIBRO